

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 98/2019 Erabakia, otsailaren 19koa. Onespena ematea aldundi honen ordezkari bat izendatzeari Arabako Foru Elkargoaren batzar orokorrerako eta gobernu batzorderako

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da Arabako Elkarkidegoko Batzar Orokorrean eta Gobernu Batzarrean, Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkari berria.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Asunción Rodríguez García izendatzea zenbait erakundetan Arabako Foru Aldundiaren ordezkari, eta aldi berean Samuel Castro Sánchez, kargutik kentzea (Foru Administrazioaren partaidetzako Erakundearen Erregistroko zenbakia adierazita dute):

- Arabako Foru Elkarkidegoko Batzar Orokorra (zenb. 94).
- Arabako Foru Elkarkidegoko Gobernu Batzarra (zenb. 82).

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN